



A25-EKO MANIFESTUA

Euskadiko Birgizarteratze Institututik (IRSE-EBI), gure inplikazioa erakutsi nahi dugu A25a ikusgarri egiteko, berriro ere, bizi garen sistema patriarkala salatzeke, eta gure konpromisoa adierazteke, mundu osoan emakumeek eta neskatilek sufritzen dugun genero indarkeria prebenitzeko eta ezabatzeko.

Erreibindikatzeko eta gogoratzeko data bat

Azaroaren 25ean 60 urte betetzen dira Mirabal ahizpak erail zituztenetik (Patria, Minerva eta Maria Teresa); Trujilloren diktaduraren aurka borrokatu ziren hiru aktibista ziren, Dominikar Errepublikan. Haien omenez, egun honetan Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeko Nazioarteko Eguna gogoratzen da. Harrezkero, mugimendu feministek, gizarteak zein herritarrek kontu ezin ahala ekintza erreibindikatio eta sinboliko abiarazi dituzte, indarkeria matxista desagerrarazteko.

Emakumeen aurkako indarkeria mundu osoko milioika emakumeek, emakume izate hutsagatik, nozitzen duten arazo bat da. OMEk mundu mailan argitaratu dituen kalkuluek diotenez, munduan hiru emakumetik batek (%35) sufritu du bere bizitzaren uneren batean indarkeria fisikoa edo sexuala bikotekidearen aldetik, edo sexu indarkeria, hirugarrenen aldetik. Emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunezko harreman estrukturaletan sakon sustraitutako indarkeria bat da, eta emakumeen aurka erabiltzen da, adina, estatus soziala, heziketa maila, maila ekonomiko edo partaidetza taldea edozein dela ere. Horregatik, erantzunak estrukturalak izan behar dira, integralak, eta oinarrian dagoen sistema patriarkalaren erroetara zuzenduta.



Aurten, bereziki azpimarratu nahi dugu pandemiak eragin dituen arazo gehigarriak, emakume ugarik egon behar izan dutelako etxean itxita erasotzailearekin batera. Bakartzea eta biolentzia psikologikoa areagotzea ohikoak izan dira, testuinguru horretan sare soziala eta emakumeen ohiko mugikortasuna murriztu egin delako, mugimenduak mugatuta eta interakzio soziala urrituta egon diren heinean. Konfinamenduak handitu egin du indarkeriaren ikusezintasuna eta pribatutasuna eta, horrekin batera, emakumeentzako arriskua areagotu da. Derrigortutako isiltasunak, laguntza baliabideetarako irispide urriagoak eta itxialdiak zaugarritasun handiko egoeran utzi ditu biktimak.

Horiengana guztiengana zuzentzen gara: egunerokoan aurrera egin eta bizirauteko modua aurkitu dutenak; irteera bat aurkitu edo salatu ahal izan dutenak; ororen gainetik, konfinamenduan eutsi ahal izan duten eta eusten jarraitzen duten guztiak.

Gizon guztiengana ere zuzentzen gara, gai izan gaitezen maskulinitate sano bat garatzeko, eta loturak indarkeriarik gabeko harremanetan ezartzeko.

Aipatuta arrazoi guztiak tarteko, beste urte batez, ezinbestekoa da egunez egun berdintasunaren alde borrokatzen diren pertsona, erakunde sozial eta politikoen konpromisoa agerian jartzea. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, beharrezkoa da herritar guztien ahaleginak batzea; emakume eta gizon guztiek egin dezakegu zerbait, eta gure hondar alea jarri nahi dugu indarkeria horren kontra borrokatzeko.



Feminismoa emakumeak pertsonak garela aldarrikatzen duen ideia erradikala da. Angela Davis.

Genero indarkeria onartezina da, galarazi daiteke eta prebenitu daiteke. Egin dezagun posible.

Phumzile Mlambo-Ngcuka

